

TXOSTENA

Aldez aurreko kontsulta publikoa, Nafarroako Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamendua, ekainaren 11ko 152/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzeko foru dekretuaren proiektuaren gainean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133.1 artikuluan xedatzen denez, erregelamenduzko lege proiektu edo aurreproiektu bat egin aurretik kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren web atariaren bidez, jakiteko zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunde nabarmenenek. Txostenean gai hauek jasoko dira:

a) Ekimenarekin konpondu nahi diren arazoak.

b) Araua onestea beharrezkoa eta egokia den.

c) Arauaren helburuak.

d) Aukeran dauden beste konponbide batzuk (arauak edo arau ez direnak).

Txosten honen xedea da kontu horiei erantzutea eta oinarria ezartzea Nafarroako Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamendua, ekainaren 11ko 152/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsia, aldatzeko foru dekretuaren proiektua prestatu aurreko kontsulta publikoari.

Abenduaren 28ko 23/2015 Foru Legeak, abenduaren 28ko 28/2016 Foru Legeak, abenduaren 27ko 16/2017 Foru Legeak zenbait zerga aldatu eta tributu arloan beste neurri batzuk ezarri ez ezik, arau aldaketak ekarri dituzte iruzur fiskalaren prebentzioan eta haren kontrako borrokan. Aldaketa horiek erregelamenduzko araua berritzera behartzen dutenez, foru dekretuaren proiektu honen bidez egokitu eta eguneratu nahi da Nafarroako Tributu Ikuskapenari buruzko Erregelamendua, ekainaren 11ko 152/2001 Foru Dekretuaren bidez onetsia.

Foru dekretuaren proiektu honek artikulua bakarra du, Ikuskaritzaren gaineko erregelamenduan aldatzen diren xedapenak biltzen dituena, eta, horrez gain, hiru azken xedapen.

Batetik, Tributu Ikuskapenaren antolaketari dagokionez, haren barnean sartuko dira informatikako teknikariak eta ikuskaritzaren jarduketa eta prozeduretan parte hartzen duten funtzionarioak, horietarako izendatuak izan badira.

Bestetik, zergapekoen ordezkariaren arloan, aldaketak sozietate taldeen kasuari eragiten dio. Sozietateen gaineko zergan finkapen fiskalaren araubide berezian, taldearen ordezkariari dagokio Tributu Ikuskapenari harrera egiteko eta ikuskapen prozesuan esku hartzeko betebeharra, eta balio erantsiaren gaineko zergan entitate taldeen araubide berezian, berriz, entitate nagusiari.

Ikuskapen jarduketan hastapenaz eta garapenaz den bezainbatean, Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren 139. artikuluan xedatutakora egokituko dira jarduketa horiek egiteko epea, ikuskapen prozeduraren epearen kontaketa eta hura eteteko edo luzatzeko kasuak.

Administrazioarekin modu elektronikoa harremanetan jartzera beharturik dauden subjektuek halako dokumentazio bat jartzen dutenez diharduen ikuskapen organoaren eskuetan, dokumentazio horri zer tratamendu eman behar zaion ezarriko da Tributuen Ikuskapenaren ahalmenen arloan. Orobat, Tributu Ikuskapenak eskatuta entregatzen den informazioaren norainokoa zehaztuko da, banku edo kreditu trafikoan aritzen diren pertsona edo entitateengandik informazioa eskuratzeko jarduketei dagokienez.

Ikuskapen jarduketan dokumentazioaren aldetik, berriz, kasu berri bat arautuko da, zeinean bidezkoa izanen den alde z aurreko akta bat irekitzea delitu fiskal bat izan litekeena jasotzeko; horrez gain, desagertzen da adostasunez sinaturiko aktetan jasotzen diren likidazioak aurkaratzeko aukera, nahiz eta berraztertze ko errekurts o a do erreklamazio ekonomiko-administratib o a paratzen ahalko den haien kontra.

Tributuei buruzko Foru Lege Orokorren idazketa berriarekin bat, zehapenen arloan murriztapen berriak jasotzen dira berehala ordaintzeagatik, zehapen larri nahiz soilei eragiten dietenak. Zehatz-mehatz, arau-hauste larrietarako, indarrean dagoen %40ko murriztapenaz gain, beste bat egonen da, gehigarri, %20koa, subjektu arau-hausleak onartutako erregularizazio eta zehapen proposamen guztiei dagokien zerga zorra dirutan ordaintzen badu, osorik, diru-bilketari buruzko araudian borondatezko ordainketarako ezarritako epean. Arau-hauste soiletarako, murrizpena %30ekoa izanen da, eta horretarako ere subjektu arau-hausleak beharko ditu onartu aurkezten zaizkion zehapen proposamen guztiak, eta osorik ordaindu zehapen proposamen guztiei dagokien zerga zorra, diru-bilketari buruzko araudian borondatezko ordainketarako ezarritako epean.

Halaber, onartutako zehapen proposamenak aurkaratzeko aukera ere kendu da, nahiz eta berraztertze ko errekurts o a do erreklamazio ekonomiko-administratib o a paratzen ahalko den haien kontra.

Azkenik, Erregelamenduan jasotzen diren xedapen bereziei dagokienez, aldaketek eragiten diete tribut u oinarrien zeharkako zenbatespenari, delitu fiskalaren zantzuak daudeneko jarduketei eta sozietate taldeen araubideko subjektu pasiboen egiaztapenari. Tribut u oinarrien zeharkako zenbatespenerako ezarri denez, hirugarrenen tribut u datuen izaera erreserbatua babesteko metodoak erabiliko dira, zergapekoaren defentsa eskubideari kalterik egin gabe, datuak tribut u administrazioetik beretik etortzen direnean.

Era berean, erregelamendu bidez garatuko da Ogasun Publikoaren aurkako delituen tramitazio administratib o berria, tribut u administrazioari, arau orokor gisa, behar diren tribut u likidazioak egiteko aukera ematen diona, deusetan galarazi gabe epailearen erabaki bat egotea geroago, hari kontrajarria edo hura eten dezakeena.

Azkenik, sozietate taldeen araubideko subjektu pasiboendako ikuskapen prozedura aldatuko da, barnean sartzeko prozeduraren xede diren talde fiskalaren eta sozietate ordezkariaren tribut u arloko betebeharren egiaztapena. Beste alde batetik, azken xedapenetan lehenaren bidez aldatu nahi da Nafarroako Zerga Ogasunaren esparruan bide elektroniko, informatiko eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko 50/2006 Foru Dekretua. Zehatz-mehatz, aldaketak 32. artikuluari baizik ez dio eragiten eta, haren ondorioz, pertsona fisikoen halako kolektibo batzuk beharturik egonen dira Nafarroako Zerga Ogasunaren jakinarazpen administratib o a bide elektronikoaren bitartez jasotzera, baldin eta, beren gaitasun ekonomiko edo teknikoagatik, edo lanbideagatik edo beste arrazoi batzuegatik, frogaturik gelditzen bada horretarako behar diren baliabide elektronikoetan sarbidea eta eskuragarritasuna dutela.

Berriz, azken xedapenetan bigarrenak aldatuko du Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen plantilla organikoa aldatzen duen otsailaren 7ko 7/2011 Foru Dekretua, zerga agenteen produktibitate-osagarria parekatu beharrez Ogasuneko eta Finantza Politikako Departamentuko Tributu Ikuskapenerako Zerbitzuari atxikitako gainerako langileenarekin.

Hondarreko, azken xedapenetan hirugarrenak Foru Dekretuaren indarra hartzea jasoko du.

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren 4. artikulua dakar Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioa Tributu Ikuskapenaren gaineko Erregelamendua aldatzeko gaikuntza, ezartzen duelarik Nafarroako Ogasun Publikoak Estatuko Ogasun Publikoak aitorturik dituen ahalmen eta eskumen berak dituela Foru Komunitateak bere dituen tributuak ordainarazi, kudeatu, likidatu, bildu, ikuskatu eta berritzeko.

Dokumentu hau interesdunen eskura paratuko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren Gobernu Irekiaren Atarian, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 133. artikuluko 1. eta 4. idatz-zatietan xedaturikoarekin bat.

Iruñean, 2018ko martxoaren 13an

ARAUEN GARAPEN ETA AHOLKULARITZA JURIDIKORAKO ZERBITZUKO
ZUZENDARIA

Javier Zabaleta Zúñiga